

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ELTZIEGOKO UDALA

Osoko bilkuraren ekainaren 28ko erabakia, arduraldi erdia duten udalbatzako kideen ordain-sariei buruzkoa

Toki Araubidearen Oinarriei buruzko apirilaren 2ko 7/1985 Legeak 75. artikuluan xedatutakoaren harira, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Arautegia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak 13. artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz, eta Euskadiko Toki Erakundeen apirilaren 7ko 2/2016 Legeak 32.4. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Arduraldi eskusibo edo arduraldi partzialik ez duten kideek bakarrik jasoko dituzte ordain-sariak osoko bilkuretara joateagatik, udalbatzak ezarritako zenbatekoan.

Toki korporazioetako kideek kalte ordainak jaso ahalko dituzte beren kide anitzeko organoen bileretara joateagatik, erakunde autonomoak barne, eta haien karguan izandako gastuengatik, osoko bilkuran erabakitako zenbateko eta baldintzetan.

Toki korporazioetako kideek karguan izandako gastuengatik jasoko dituzte kalte ordainak, administrazio publikoetako arau orokorretan xedatutakoari eta horiek garatzeko udalbatzak onetsitakoei jarraituz.

Horregatik guztiagatik, udalbatzak aho batez honakoa erabakitzen du:

Lehenengoa. Arduraldi partzialagatik ordainsaririk jasotzen ez duten korporazio kideen alde, kalte ordain hauek ezartzea:

a) Osoko bilkuretara joateagatik 30,02 euro.

b) Korporazioko kide guztiek jasoko dute euren egitekoak betez sortzen zaizkien gastuen ordaina, hauei badagozkie: bidaia gastuak, joan-etorriak eta otordu sariak, betiere behar bezala justifikatu ondoren. Kilometro ordainari dagokionez, 0,36 euro ordainduko zaie kilometro bakoitzeko eta 19,30 bazkari bakoitzeko, behar bezala justifikatu ondoren.

Guztiak jakin dezaten eta dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Eltziego, 2019ko abuztuaren 8a

Alkatea

LUÍS ALDAZABAL RUIZ DE VIÑASPRE